

Lana duten EAEko 18 eta 34 urte bitarteko emakumeek gizonek baino 200 euro gutxiago irabazten dituzte

Emakume gazteek neurri handiagoan dute lanaldi partziala familia-betebeharrak direla-eta


Otsailaren 22an **Emakume eta Gizonen Soldata Berdintasunaren aldeko Eguna** dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) EAEko gizon eta emakume gazteen enpleguari eta soldaten arteko desberdintasunari buruzko datu batzuk zabaldu nahi ditu.

Aztertutako datuak Gazteen Euskal Behatokiak berak burututako ikerketa batetik datoz, "Euskadiko gazteen enplegua eta emantzipazioa 2011-2013 aldian" izeneko, hain zuzen ere. Ikerketa horrek 18 eta 34 urte bitarteko EAEko gazteei beren etxeetan egindako inkestak hartzen ditu oinarri.

EAEko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen erdiak (% 45,2) lanean daude (% 44,0 gizonen artean eta % 46,4 emakumeen artean) eta beste % 27,4 ikasten. Langabeziak % 22,7ri eragiten die.

Lanean dauden emakumeen portzentajea gizonena baino altuagoa da (% 46,4 eta % 44,0) baina horrek genero-alde sakona estaltzen du: emakumeek gizonek baino 200 euro gutxiago irabazten dituztela hiler (1017 € eta 1212 € hurrenez hurren).

18 eta 34 urte bitarteko gazteen hileko soldata garbia, sexuaren arabera



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokia
(Euskadiko gazteen enplegua eta emantzipazioa 2011-2013)*

Soldata-alde hau azaltzen duen arrazoietakoa bat aurkitu nahi badugu, emakumeen eta gizonen lanaldira jo behar dugu. Lanaldi partzialean dabiltzanen portzentajea askoz handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino (% 37 eta % 17, hain zuzen ere). Bai emakume zein gizonen artean lanaldi hori izateko arrazoia besterik ez dietela eskaini izan arren, hamar emakumetik batek familia betebeharrei egotzen diete lanaldi osoan lanean ez egotea.

Emakumeen artean lanaldi partzialen prebalentzia handiagoa izateak haien soldatetan eragina du. Izan ere, lanaldi partzialean ari direnen batez besteko soldata 671€koa den bitartean, lanaldi osoan dabiltzatenen soldata 1280€koa da.

Beraz, lan-merkatuan emakumeen presentzia gizonena baino handiagoa den arren, beraien lan baldintzak oraindik ere gizonenak baino askoz kaskarragoak dira.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

